

## Miren Baranguan fakultateko ikasleak irabazi du aurtengo euskarazko Ikasketa Amaierako Lan onenen saria

2016/03/18

Miren Baranguan Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunean masterreko ikasleak irabazi du aurtengo euskarazko Ikasketa Bukaerako Lan onenen saria. Mondragon taldeak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK antolatutako lehiaketak sustatu nahi du euskarazko proiektuak enpresetan. Bigarren saria Enpresagintzako Garazi Perez de Arenazak irabazi du.

Miren Baranguak Arizmendi ikastolan egin zuen iaz Master Amaierako Lana. Bertan, aztertu zuen ikastolara etorri berri ziren umeen euskararen erabilera. Fakultateko tutorea izan zen Pilar Errasti, eta, ikastolakoa, Maider Erze.

Irabazlea eibartarra da eta 24 urte ditu. Egun, Arizmendi ikastolan bertan ari da lanean.

Aurtengoa izan da lehiaketaren bosgarren edizioa. Iazko ikasturtean, guztira, 655 ikasketa Bukaerako Lan egin ziren MONDRAGON UNIBERTSITATEAn, horietatik guztietatik 160 Mondragon taldean barruan. Hizkuntzari dagokionez, guztietatik 208 euskaraz egin ziren, horietatik 27 Mondragon talderako. Aurtengo lehiaketako finalera 15 lan iritsi dira.



Miren Baranguan, lehiaketako irabazlea.



Argazkian lehiaketako antolatzailea, tutoreak eta irabazleak.

- Aurtengo edizioari buruzko informazio gehiago.
- Sari banaketako argazki galeria.